

Karkara

karkara.eus

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2017ko irailaren 1a · 386 zenbakia



Oporretatik bueltan

Orioko hondartza zaharrean, giro bikaina izaten zen uda garaian. Orduko txiringitoetako jabe eta langileekin bildu da KARKARA.

11

Erreportajea
1939ko bandera

16

Elkarrizketa
Jone Olaskoaga

18

Argazkiak
Aiako jaiak

31

Oroimenaren kutxa
Manuel Olaizola

PUBLIZITATEA



Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia, 2 - behe (20810 Orio)
Tel./Fax: 943 134 717
Mugikorrak: 638 610 343 / 638 610 349
galebask@hotmail.com



IZARRA ELEKTROGAILUAK

TIEN 21

ESKOLARA BUELTA

Eusko Gudari, 44 - Telf. 943 83 38 81 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

libe

dietetika

elikadura aholkularitza

943 53 64 94 : 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com
eusko gudariak 35 : ORIO
[Lurra Arantzale kalea]



KARELA KIROLDEGIA

IKASTAROAK 2017-18

IRAILAREN 11tik IRAILAREN 01era aboratu gero, MATRICULA DOHAN!

GURE SAIO BERRIAK: Gymbalance, Postural Training, Running eta HIIT.
Animatu zaitetz eta zatoz gurekin ondo pasatzera!!

KARELA Emiberak 1, 20810 Orio - 943 894 426 - orio@bixport.es



sinergia FISIOTERAPIA IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

Lizaso dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)

obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua

XS arkitektura

borja agirresarobe lopetegi
herriko-barra 6, behea
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com

386

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua

Miriam García

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Lore Berasaluze
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Ale honetako
kolaboratzaileakAiako gazteak
Marisa Arruabarrena
Iñaki Iturain
Nere Manterola
Itziar Olasagasti

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Ibon Berasaluze,
Iñigo Fernandez (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzun-
kizunik. KARKARAN argitaratuta-
koa berreman daiteke, osorik
edo zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.

TOKIKOM

2015 **Bikain**
Bikain

LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako
Foru Aldundia

PUNTUA JARRITA

ITZIAR OLASAGASTI (DOINUA: PELLO JOXEPE)

Infantiletan arraunen hasi
ta traineruan jarraitu.
Aurten arlo berri bat ekin
neska mutilak gidatu.
Hori gutxi ez eta gainera
hemen bertsotan aritu,
gustura jardun naiz baina
badut nahikoa meritua.

Uda honetan ikusi dugu
jendea horiz hornituta,
neska-mutilak igo baitira
ikurrinari helduta.
Ahaleginduko gera zuek
bandera irabazita,
udal balkoira igo zaitezten
niki horia jantzita.



Hurrengoari puntua: Aurten modan jarri da
kolore horia!

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Sonia)

publizitatea@karkara.com



karkara.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Zaragueta eskola euskaraz heziz eta haziz (1977-2017)

Euskal Autonomi Erkidegoko eskoletan 80ko hamarkadan hizkuntza ereduak ezarri aurretik, Orioko Zaragueta Herri Eskolan haurrak euskaraz hezi eta hazteko beharra eta gogoaz piztu zen 70eko hamarkadan. Familia, eskolako langile eta beste pertsona batzuen borroka eta lanari esker, aurten beteko dira 40 urte Zaragueta Herri eskolan lehen ikasle taldeak bere ikasketak euskara hutsean egiteko aukera lortu zuenetik. Ordutik hona ere bidea gora-beheratsua izan da, zaila, oztopo eta une gazi-gozoz bete. Baina merezi izan du.

Herriar haiek ereindako haziari esker, harro esan dezakegu Zaragueta Herri Eskolan Orioko haurrak euskara hutsean hezten eta hazten ditugula. Horregatik, 1977an hasitako bidearen 40. urteurrena ospatzera goaz.

Ikasturte osoan zehar aurrera eramango dugun egitaraua prestatzen ari gara, eta izango duzue haren berri. Baina ospakizunei hasiera emateko irailaren 22an arratsaldeko 17:00etan ilusio handiz prestatutako hasiera ekitaldia ospatuko dugu Zaragueta eskolan.

Hazia erein zenutenak, 40 urtetako bide luze honetan partaide izan zareten familia, langile, ikasle, herritar eta oriotarrak: gonbidatuta zaudete, zatorzte ospatzera, zer ospatua badago eta! ■ **Zaragueta Herri Eskola**

Autokarabanen aparkalekuarekin jarraituz

Kaixo:

Orioko bizilaguna naiz, eta eskutitz honekin aurreko Karkaran Orioko bizilagun batek autokarabanen aparkalekuaren inguruan egindako zenbait komentario erantzun nahiko nituzke.

Hasteko, eskutitzaren hasieran... Po-

litikariei galdetu nahi nieke zein diren garrantzitsuago, herriko bizilagunak, botoa eman dietenak, edo bi egun pasatzera datozen autokarabanazaleak? Herriarren interesak zaintzeko daude politikariak, eta nork bere etxe azpian nahi ez duena ez luke besteen etxe azpian nahi beharko... diozu. Ados politikariak zaindu behar gaituztela, baina horrek ez du esan nahi kanpotik turismoa egitera datozei ateak itxita izan behar duenik. Turista horiek bidaltzea dendari eta ostalariak zaintzea al da? Jarraitzeko, etxe azpiari egin diozu aipamen. Horri helduta, etxe azpian zaborrontzia duenari galdetu beharko diogu, edota herriko festetan goiz-arratsalde eta gauean barraka edota txosnak jasan behar dituenari, edota eliza ondoan bizitzeagatik kanpai hotsak jasan behar dituenari, edota etxe aurrean haur-parkea duenari, edota etxe azpian autobus-geltokia duenari, etxe azpian taberna duenari, goizetik kotxe mugimendua sortzen duen an-

PERTSIANAK
AKO MAZ
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

JON ANDER MAIZA AROZTEGIA
LEIHO ISOLATZAILEAK
PVC - ALUMINIOA
690 99 39 32 / 943 30 07 88
ventanasmaiza@gmail.com
www.carpinteriamaiza.com
Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORIO

LUXARBE
Igeltseritza
Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.
Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe
Lan txukuna eta merkea
Tlfnoa: 943 83 59 00

MENDIZABAL AROZTEGIA
Nerriko armariek eta egurreak
943 831 175
645 708 491
mendizabalgia.net
Altxeri bidea
Beti-Ajai etxea
20810 Aia-Orio

ZINKU
Igeltseritza orokorra
Etxeko errebordua, mola, guztiek
lurrikak, bainu-gelak, igeltserak...
Ander Zinkunegui
667 740 279

LEUNDA OKINGEDIA
Tlfnoa: 943 89 00 57
ORDUTEGIA
BISTERRIKETIK - GARRUPATIK 7:00 - 20:30
MENDI LIT. JAI EGUNTAN 7:00 - 13:30

kutixi
kafetegia
GOSARI GORDAK
Antzaga 8, 20810 Orio
Tf: 943 13 15 17

ttipi ttapa
943259695
ttipittapa.oihane@gmail.com
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

bulategia aurrean duenari, eta abar, eta abar. Horiek guztiak beharrezkoak dira gehiago edo gutxiago, eta onartuta dauzkagu, gehienon interesekoak direlako. Zergatik turismoa –denon intereseko jarduera ekonomikoa– bultzatzen duen ekintza honi ezezkoa?

Aurrerago zure eskutitzean... *Lehen-go elkarrizketara itzuliz, autokarabanekek etxe ondoan aparkatu izan dutenentzat sortzen dizkiguten arazoak aipatu nizkion: kotxeen soinuak, pertsonen zaratak, txakurren zaunkak, zaborrak eta gorotzak, bai txakurrenak eta baita pertsonenak ere!*... diozu. Urte asko dira handik eta hemendik autokarabanaz mugitu naizela, eta ez dut ikusi oraindik autokarabanentzat egokitu den gunebat non zuk diozun *panorama* hau ikusten den. Autokarabanazaleak gara lehen interesatuak aparkaleku horiek garbi mantentzen, bizilagunekin arazorik ez izaten, eta isiltasuna mantentzen, baita exijitzen ere! Ez ahaztu, edonorri bezala, guri ere lasai bizi eta lo egitea gustatzen zaigula. Autokarabanentzat parkingak egokitzen direnean, bertan zaborrontziak, urak hustutzeko estoldak –baita komunetakoak ere– eta ura hartzeko iturriak jartzten dira, besteak beste. Horrekin lotuta, ...*eta, gutxi balitz, ura, argindarra eta abar jarri beharko zaizkie!*... ere ba-

diozu. Zerbitzu horiek ez dira doakoak, noski. Eta autokarabanazaleok ez dugu inongo arazorik izaten horiek ordaintzeko, atsegin handiz gainera! Egiten den ordainketa sortzen den gastua baino handiagoa da, egon lasai.

Ia amaieran, badiozu baita ere... *butkatzeko, galdera hau bota nahi dizuet: auzo horretan etxea erosi dugun guztioek berdin erosiko al genuke jakinda autokarabana parking bat edukiko dugula etxeari itsatsita? ... Etxebizitzek balioa galduko dute autokarabana parkingarekin...* Gure portaleko ateak zergatik izan behar du autokarabana parking bat aurrean? Kontuan izan eraikinean ezindu bat bizi dela eta, gainera, eskola bat dagoela oso gertu... Egia esan, ez dakit autokarabanen zenbat parking edo gunebat ikusi dituzun, baina planteatzen duzun *kaosarekin* ez datoz bat. Gipuzkoan eta Euskal Herrian gero eta gehiago dira autokarabanentzat egokitzen diren gunek. Horietako edozeinetara joateko gonbita luzatzen dizut –ez baduzu egin–, eta ikusi zer nolakoa den egoera. Urte asko dira Europako herrialde aurreratuenek –Frantzia, Alemania, Suiza...– turismo mota honi ere ateak zabaltzen zizkiotela, eta ziur izan legeak errespetatzen eta ordena mantentzen eredu direla. Udaltzaingoa ere galde dezakezu au-

tokarabanistek arazorik sortzen duten.

Amaitzeko, ...*Ziurrenik Gipuzkoako Autokarabanen Ekarteko presidentea oso gustura egongo da parking berriari eman nahi zaion kokalekuarekin, baina bizilagunak ez...* diozu. Ez dakit presidente hori zein den, beraz, haren ize-nean hitz egingo ez dudanez, zure inguruko bizilagun guztien izenean hitz egitea agian ausartegia izan daitekeela iritzita agurtzen zaitut. Mila esker. ■ **Orioko bizilagun bat**

Juakinen memoria zabaltzen lagundu duzuenoi

Goiz joan zaigu hainbeste maitasun adierazi zigun seme, senar, aita, anai eta osaba. Hala ere, ederki aprobetxatu zituen bizitako urteak. Umiltasunez eta bizipozez jende askorekin esparru ezberdinetan konpartitu zuen bere bizitza. Gustura egiten zuen eta beti prest zegoen emateko. Familiak hori dena jakin izan dugu eta zoragarriak izan dira bera agurtzeko momentuan, Juakinekin bizitzan zehar topo egin duen jendeak gurekin konpartitutako maitasun eta bizitako esperientzia ederrak. Eskerrik asko guztioi bihotz-bihotzez. ■ **Juakinen familia**

EZKONDUTAKOAK

- Maider Dominguez Flores eta Gorka Sarasola Burugain, abuztuaren 5ean.
- Asier Eizagirre Aduriz eta Antonio Malmieros Maetos, uztailaren 29an.
- Loredi Marti Zinkunegi eta Jokin Lertxundi Arruabarrena, uztailaren 22an.
- Francisco Javier Varona Arratibel eta M. Vicenta Capella Buissan, uztailaren 22an.
- Amaia Balerdi Idarreta eta Beñat Olaskoaga Alonso, uztailaren 9an.
- Iker Torre Larrañaga eta Eva Tomas Navarro, ekainaren 30ean.
- Saioa Gozategi Otaegi eta Reyes Garcia Duran, ekainaren 24an.
- Ainara Ubegun Lizaso eta Jose Antonio Garcia Leal, ekainaren 24an.

JAIOTAKOAK

- Amets Padrones Mancha, Orion, abuztuaren 28an.
- Ethan Uranga Arrizurieta, Orion, abuztuaren 22an.
- Nadeth Amundarain Gomez, Orion, abuztuaren 9an.
- Massambadiop Ndiaye, Orion, uztailaren 31n.
- Unax Pierola Otermin, Orion, uztailaren 3ean.
- Adei San Sebastian Egaña, Orion, uztailaren 21ean.
- Leize Zinkunegi Gozategi, Orion, uztailaren 15ean.
- Yera Redondo Britt, Orion, uztailaren 6an.
- Telmo Ibarguren Gama, Orion, uztailaren 3an.

HILDAKOAK

- Vicenta Gomez Nuevo, Orion, abuztuaren 30ean.
- Juan Mancisidor Aristi, Orion, abuztuaren 9an.
- Lutxi Mitxelena Etxeberria, Orion, abuztuaren 5ean.
- Joakin Illarramendi Roteta, Orion, uztailaren 30ean.
- Maria Jose Sarasola Ugartemendia, Orion, uztailaren 30ean.
- Domingo San Sebastian Makazaga, Orion, uztailaren 29an.
- M. Jesus Lertxundi Iturzaeta, Orion, uztailaren 23an.

UDAKO KRONIKA



Zarauzko ikurriñak poza ekarri zuen herrira. EGIGUREN ARGAZKIAK



Herri kiroletan aritu ziren australiarrak gazte egunean. KARKARA



Bonolotoak sari potoloa utzi zuen Orion. KARKARA

Karkarako arranplatik

“Bizitzan, dena ez omen da zuria edo beltza. Begiratu, bestela abuztuari... Ondo grisa joan da!”

Bizitzan, dena ez omen da zuria edo beltza. Begiratu, bestela, abuztuari... Ondo grisa joan da! Eskerrak, behinik behin, herria kolore horiak hartu duen. *Jon, ibiliko al gara?* galdera egin genion maiatzeko zenbakian Jon Salsamendi mutilen entrenatzaileari, eta erantzuna, zirraraz betetako estropadekin eta bost banderekin jaso dugu. Tartean, Zarauzkoa. Txalupa horiak ilusioa piztu du herrian, eta aspaldi ez bezala bete da herriko plaza errezibimendu bakoitzean. Neska-mutilak, zorte on irailako azken joaldietarako!

Arraun kontuak lagata, beste kiroletan ere herritar mundialak ditugulagorarazi digu udak. Sara Iparragirre eta Mikel Amilibia gazteek Munduko txapelketetan parte hartu dute, saskibaloian eta eskubaloian, hurrenez hurren. Sararen taldea final laurdenetan kaleratu zuten, eta Mikelena munduko azpitxapeldun izan da. Aupa zuek!

Oriotik mundura salto egiten dutenak, eta mundutik Oriora datozenak. Nahikoak izan al dira aurten? Orion ez dakigu, baina Donostian bai. Hondartza eta ostatuez gain, turistek egunkariak eta *teleberriak* sarri bisitatu dituzte azken asteetan. Jaurlaritzako autobus turistikoari, ordea, Orio bisitatzea *ahaztu* zitzaion uztailan, eta zeresana eman zuen udalbatzarrean. Ederra marka! Turismoa egiteko, edo beste mila gauzetarako, 163.758 euro utzi zituen bonolotoak herrian. Izango zen *biba* eta *txalua* patrikaren batean! Turista eta atzeritarren gaia aterata, ezin Aiako australiarrena aipatu gabe utzi. Gazte Egunean, *Aussieak* eta aiarrak gustura aritu ziren elkarren aurka herri kiroletan. Jende piloa elkartu zuen festak!

Zenbaki hau itxi aurretik, moila bazterreko korrespontsalak beste albiste on bat eman digu. Herriko baporeek krixton arrantzak egin dituzte azken asteetan. Bost bandera, 163.753 euro eta milaka kilo hegaluze; eguraldi kaxkarrak, axola al du?

KARKARIÑOAK

Zer iruditzen zaizu uda honetan turismoaren sortu den polemika?



“Turismoarekin sartzea akatsa dela uste dut”

Nik uste dut turismoa beharrezkoa den gauza bat dela. Industriadik ez dagoen inguruneetan, Orion adibidez, turismoak garrantzia handia du. Jende asko hortik bizi da.

Turismofobiaz hitz egin da uda honetan, eta nik uste dut turismoarekin eta turistekin sartzea akatsa dela.

Egia da leku batzuetan bertakoek ezin dutela lasai bizi, turismo gehiegi dagoelako, baina zerbait orekatua izan beharko luke.

Orion bertan daukagun gutxia zaindu beharko genuke, adibidez. Ezin dugu horren kontra joan, ez da bidezkoa.

Santi Sanchez Barandiaran



“Gu ere turistak gara, kanpora joaten gara”

Pasatzen ari direla iruditzen zait, guztiak du neurria. Gu ere turistak gara eta ez zaigu gus-tatzen kanpora joaten garenean horrela tratatzea. Indarkeria gehiegizkoa da, ziur nago pintadak egiten ari direnak ere turista bezala aterako direla.

Turismora bideratutako etxebizitzak erregulatu egin behar dira, horrekin ados nago. Ez gaude turismora ohi-tuak eta bat batean masifikatu egin da hemen, prakak jaitzita harrapatu gaitu. Baina turistek ez dute horren kulparik.

Aurrekoan batek esan zidan: *Orion gauzak oso ondo egiten ari gara, esan beharko diegu Bartzelonakoei nola egin turistak ez etortzeko!*

Ainhoa Fernandez



“Gaia agendan sartzeko balio izan du polemikak”

Gu ere turistak garela eta beste lekuetara joaten garela ahaztu gabe, hemen nahi dugun turismo ereduaren inguruan irakurketa bat egin behar dela uste dut. Iruditzen zait Orion badagoela turistentzako tokia, baina pentsatu behar dugu nolako turistak nahi ditugun jaso eta, batez ere, zer eskaini nahi diegun. Donostiakoa eredu garbia izan da, baina beste toki batzuetan ere ikusten da eredu ez dela oso jasangarria. Horrek ez du esan nahi turismoaren kontra gaudenik.

Honekin, behintzat, gaia agendan sartzea eta eztabaida piztea lortu da. Eta Orion ere ez litzake gaizki egongo hausnarketa horretan sartzea.

Joseba Orella

Zarautz

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa

> Hileta zerbitzu orokorrak

> Zerbitzu iraunkorra

Harrespil

Hilerri Zerbitzuak

bai

zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

UZTAILA ARGAZKITAN





PUBLIZITATEA

edertegia
ANTILLA
jatebidea

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

HAIZE BERRI
taberna-jatebidea-kafetegia

Plater konbinatuak,
bikatak,
hamburgesak,
razoak,
eguneko menua...

*ostiralean
pintxo
potxa!*

eta etxera eramateko
serbitua!

943 831 623
Oriko kiraldegia, Iturburu 1

**ASADOR
XIXARIO**

Sanjo Gasteiz Kalea, 2
Tel. 943 830 819 - ORIO

Portu
ERRETEGIA

Sanjo Erreka Auzoa, 49
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

*braskak, birsento ostalar
pintxo onak, eranda menu*

ITZALA

*kartela jokatzen
azkeneko*

tel. 943 83 12 59

Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

KOLON TXIKI
antzerkietan
jatebidea

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

ARISTERRAZU
jatebidea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-
fotorosanaarruti@gmail.com
tel: 943 83 58 45

JATEBIDEA
Galerna

Antillako
Hondartza 5
20810-Orio
Tel.: 943 89 04 16

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**

943 578 176
Herriko enparantza

Izozki naturalak - Opilak

PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

arkaitz taberna
orio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657



1939ko Donostiako Banderaren auzia

Donostia Kulturak 1939ko Donostiako Bandera palmaresetik kanpo uzten zuela adierazi zuen iazko udan. Berehala, bost oriotarrek komisia sortu zuten gaia aztertzeko. Bulegoko lanak uste baino gehiago luzatu zitzaizkien, baina **2017ko ekainean, bandera palmaresera itzultzea** lortu zuten.

TESTUA: I. GAITON

ARGAZKIAK: J.M. ETA J.J. OLASAGASTI/KARKARA

Arraun munduan ez da ohikoa bandera bera irabazteko bitan izerditu behar izatea. 1939an, Orioko txalupak uretan irabazi zuen Donostiako Bandera. Hirurogeita hamazazpi urte geroago, Donostiako Udalaren erabaki batek lanean jarri zituen berriz oriotarrak; hauek hilabeteetan lehorrean egindako lana, ez zen itsasokoa baino askoz ere samurragoa izan.

2016ko abuztuaren 25ean hasi zen gaia korapilatzen. Donostia Kulturak 1939ko bandera palmaresetik kanpo uzteko hainbat argudio argitaratu zituen bere webean. Hurrengo egunean bertan, Orioko Udalak eta Orioko Arraun Elkartek beren haserrearen berri eman zioten Donostia Kulturari eta Alkatetzari. Oriotarrek oraindik ez bazekiten ere, hor hasi

zen hilabeteak iraun zituen endredoa.

Komisioko kideei bandera palmaresetik ateratzeko erabilitako arrazoi nagusia fundamentu eta pisurik gabea iruditu zitzaien hasieratik: 2016ko hiriburutza zela eta, zerbait berezia egin nahi zuten Kontxako estropadetan. Banderan ohiko izendapenaren ordeztasun ordez –1879-2016 Kontxako...–, lehen aldiz edizioaren zenbakia ezartzea erabaki zuten. Palmaresari erreparatuta 121. edizioa zen 2016koa, baina 120 zenbakia aproposagoa iruditzen zitzaien antolatzaileei, borobilagoa, eta horretarako, 1939ko bandera baliogabetu zuten.

Orioren ondare historikoa

Oriotarrek argi izan zuten hasieratik banderaren auzia Orio Arraun Elkartearen gaindiko gaia zela. Azken batean, herria-

ERREPORTAJEA



ren ondare historikoan sartu zuten eskua. Komisioko kideen hitzetan, donostiarren arinkeriaren aurrean gaiak *denbora eta ikerketa* eskatzen zituen.

2016ko urriaren 4an bilera izan zuten Donostiako Udalean, Eneko Goia alkatea eta bandera palmaresetik ateratzeko proposamena egin zuen Alfonso Gurpegi zinegotziarekin. Honen ustez 39ko estropada baliogabetzeko argudioak pizuzkoak ziren. Oriotarrentzat, ez. Ezadotasun hori ikusirik, Eneko Goiaren jarrera *irekia* izan zen bileran, eta gaia behar bezala aztertzeo aukera zabalik utzi zuen.

Oriotarrei denbora epe bat eman zieten estropada hari buruzko azterketa egiteko, eta ikerketa amaitzean, bandera palmaresera itzuli edo ez erabakitzeko ardura Aranzadiren esku uztea proposatu zuen Goiak.

Informazio bilketa oparoa

Lehen informazio bilketa herritarrekin egin zen, eta estropada zaharren inguruko ekarpen ugari jaso zituzten komisioko kideek. Txosten nagusia prestatzeko ardura Xabier Alberdik hartu zuen, Aro Berriko Historian doktorea eta euskal itsas-ondarean aditua den zarauztarrak.

Alberdik martxoaren 28an aurkeztu zion txostena komisiolari. *Xabierrek lan bikaina egin zuen, astindu ederra eman zien liburutegi eta artxiboei. Bere txostena irakurri ondoren, indarberritu egin ginen. 1939ko banderak palmaresean egon behar duela ziurtatzen duten argudio potoloak daude dokumentuan.* Apirilaren 4an txostena helarazi zuten Aranzadira. Aste luze batzuen ostean, Aranzadik Xabier Alberdiren lana *izugarria* dela adierazi zuen.

Ekainaren 28an eman zuen Donostiako Udalak azken erabakia: *Aranzadik 1939ko estropadak palmaresean egon behar duela iritzi du. Gainera, urte horretatik aurrera, testuinguru historikoa dela eta, estropada fase berria hasi zela azpimarratzen da.* Ondo kostata izan bazen ere, eta arinkeriarik gabe eta ondo aztertuta, palmaresean zen berriz 1939ko Donostiako Bandera. Orioren hogeita hamaikagarrena.

“Bandera palmaresetik ateratzeko arrazoi nagusia fundamenturik gabea iruditu zitzaien oriotarrei.”

“Komisioko kideen iritziz, Orioren ondare historikoan sartu zuten eskua.”

“2017ko ekainaren 28an itzuli zen bandera berriz palmaresera.”



“Kontxako estropaden historia ezin da ulertu 1939ko edizioa kontutan izan gabe”

Xabier Alberdi

Historialaria

Xabier Alberdi Aro Berriko Historian doktorea da, eta ikerketa asko egin ditu euskal itsas ondarearen inguruan. Gaur egun, Albaolan eta Donostiako Untzi Museoan dihardu lanean.

Komisioak gaia azaldu zizunean, zein izan zen zure lehen inpresioa?

Bandera palmaresetik ateratzeko erabakia, benetako ikerketa bat egin gabe hartu zela ikusi nuen berehala. Hala ere, oriotarrei argi esan nien azterketak ez zuela bermatuko bandera palmaresera itzultzea; agian, artxiboetako dokumentuek kontrakoa adieraz zezaketen. Nire txostenak ez du esaten edizio horrek barruan egon behar duen edo ez, hori erabaki politikoa izan da. Epaia ondo dokumentatuta ematen lagunduko zuen dokumentu bat osatzea izan zen nire zeregina.

Donostia Kulturak mahai gainena jarritako argudioei buelta ematea erraza izan al zen?

Donostiarrek 1939ko edizioari atxikitzen zizkieten ezohiko berezitasunak, puntu hauen ingurukoak ziren: estropada jokatzen hilabetea, estropada eremuaren distantzia, edizioa antolatu zen modua eta egoera politikoa. Argumentuak ateratzeko, ordea, 1939ko estropada bakarrik hartu zuten kontutan. Nire zeregina, gainontzeko edizio guztiak aztertzea izan zen, beraiek 39koari atxikitzen zizkieten berezitasunak, beste urteetako askok ere bazituztela frogatzeko.

Edizio bakarra erabili zuten lagin gisa.

Hori da. Estropada batek palmaresean egon behar duen edo ez erabakitze, ikerketa perspektiba zabalagotik egin behar izaten da, aurreko eta ondorengo edizioak ere aztertuz.

Txostena osatzeko, zein informazio iturri kontsultatu zenuen?

Koldo Mitxelena liburutegia, Donostia, Orio, Getaria, Hon-

darribia eta Bilboko Udal artxiboak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko artxiboa.

Esaldi bakarrean azalduta, zergatik egon behar du 39ko banderak palmaresean?

1939ko edizioa gabe ezin daitekeelako Kontxako Estropaden historia ondo ulertu.

Zergatik?

Estropaden birsortze bat eman zelako urte horretatik aurrera. Donostiako Estropadak XIX. mendean hasi ziren jokatzen, eta 1938. urtea bitartean, edizio batzuk ez ziren antolatu. 1939tik aurrera, ordea, estropadek pisu handiagoa hartu zuten gizartean eta, hortik aurrera, jokatzen ez ziren urteetan arrazoi potoloren batengatik izaten zen. Alegia, 1939. urtetik aurrera, egonkortu egin ziren traineru estropadak.

Ikertutako dokumentu zaharretan, zerbaitek harritu zaitu?

Deigarria da ideologia politiko ezberdineko jendeak arrau-nari ematen zion garrantzia. Ziklismoak edo futbolak adinako prestigioa zuen Donostiako Banderak. Traineruak uretaratzen zituzten herrien ohorea jartzen zen jokoan. Orduko politikariak ere konturatu ziren arrauak zenbat jende mugitzen zuen, eta ez da kasualitatea 1940tik aurrera Franco bera ere Donostiako Estropadetara gerturatzea. Abertzaleen ikuspegitik, Kontxa aukera paregabea zen aspaldiko lagunekin bildu, eta frankismoak libre uzten zituen zirrikitu gutxitan festaz goatzeko.

Historiagile gisa, zer iruditzen zaizu Donostia Kulturak 39ko banderarekiko izandako jarrera?

Bizi garen gizartean, historia ez dugu behar beste baloratzen. Zoritxarrez, beste hainbat alorretan, bandera honena bezalako kasu asko ematen dira. Sarriegi, arinkeria hartzen dira historikoki pisu handia duten gaiei buruzko erabakiak.

PUBLIZITATEA



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com



GARMENDIA
 HIRIEN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASIGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendiagestion.com

SU KIA
 IABENIA JABETZA

On egin eta gero... hartu KODA eta TOPAIE

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNIKO MENUA
- EGIKARIAK
- OGIA

Tel.: 943 834 466
 ABARRONEN 10, 1. BARRUA



Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
 688 714 869

Endala Enparantza, 1
 20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco
 Orioko ordezkaria
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com




Tf: 943 130 438



urbide
 iturginak s.l.

iturgintza - Berogintza

Bizkara Kalea, 4
 20800 Zaratza
 943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

URANGA
 burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



KORTABERRI
 arotz lanak

Imanol Illarramendi
 Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com
665 70 33 47



Alustiza Autobusak
Alustiza Bidalak S.L.

Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra



KNOBGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascarraja@euskalnet.es
20810 Orio

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALOKUEN ALDAKETA
- KOMUNITATEBENTZAKO ZERBITZUA

AKULUA HARTUTA

NIRE HONETAN

Herritik eta herriarentzat

Aiako gazteak



Dakizuen bezala, pasa den abuztuaren 5ean, Aiako Gazte Eguna ospatu genuen. Honen harira, balorazio txiki bat egin nahi genuke.

Festen antolakuntzari dagokionez, Fermin Muguruzak zioen bezala *probatu ez duenak ez daki zer den hau*.

Hasiera batean, azken urtetako gaueko martxa eskasari buelta emateko intensioz gazte batzuk batu ginen, beste urteetan egon ohi zen txosna berreskuratuz. Eta hor hasi ziren bilerak, deiak, kafeak eta orokorrean tratua ez duzun jendearekin elkarrizketak. Sarea ehuntzen hasi zen apurka-apurka, talde polit, anitz eta batez ere gogotsu bat eraikiz.

Txosnarako baimena lortu ostean, Gazte Eguna antolatzeari ekin genion. Gaueko festa sustatzeaz gain, herri osoak parte har zezakeen eguneko egitaraua osatzeari ekin genion.

Herri kirolak auzoen artean ideia polita iruditu zitzaigun, ez zen erreza izan auzo bakoitzetik taldetxo bat ateratzea, baina deiak egiten hasi eta erronka batzuk medio lortu zen osatzea.

Paella lehiaketaren antolakuntza berriz udalaren laguntzaz arinago egin genuen, materiala beraiek utzi baitziguten eta banatu genituen kamiseten finantza-keta herriko taberna guztien artean egin baitzen.

Arratsaldeko Elektro-triki poteoa herriko tabernetan zehar, jan edanarekin eta jolas ezberdinekin une dibertigarri bat pasatzeko aitzakia paregabea, ondoren zertorren gau itzelerako beroketa ariketak izan zitezten.

Eta eguna iritsi zen, udara, abuztuak 5, dena prest zegoen, egin beharrak banatu ta, eta denak bere postuetan. Baina otoi egitea ahaztu zitzaigun eta ez zen barkamenik izan. Goizean goizetik laino itxi-itxi batek tapatu zuen Aia eta euria geratu gabe jardun zuen, ekitaldi ezberdinak arriskuan jarritz. Ala eta guztiz ere animoa ez genuen galdu eta goizean goizetik egin beharreko aldaketa eta moldaketak egiten hasi ginen. Gazte taldeaz aparte ohartu ginen ez geundela bakarrik, denak kezaturik, mezuak bidaltzen laguntza eskainiz, parean zegoenak eskua luzatuz, "herritik eta herriarentzat" lema bere osotasunean beteaz eta jendearen inplikazioaz harriturik eta berari esker, eguneko ekitaldi guztiak, guzti-guztiak aurrera atera ziren. Antolakuntzan jardun ginenentzako plazer bat izan zen, horrelako jarrrera, gogoia erakutsi zuen pertsonekin lanean jarduteak. Horregatik Aiako gazteen izenean ESKERRIK ASKO eman nahi dizkiegu lagundu, parte hartu eta festara inguratu ziren guztiei.

Gora Aiako Herria, Milesker eta lanean jarraituko dugu.



Jon Agirresarobe

Purrusta



urist go home pintadak Donostian, kontzertuak 92 dezibeliotan egiteko Udalaren bandoa Zarauzko Azken Portun,

autokarabana gunea non egin eztabaida Ortzaitatik Abaromendira. Hiru kasutan bizilagunen kexa izan da abiapuntua. Guztiak sortzen digu azkura, guztiak molestatzen gaitu. Kexatzea eskubide eta purrusta herri kirol bihurtu da gurean, esaera zaharra aldatzeraino: bizilagun bat facebookeko paretean zinegotziei irainka, bi bizilagun auzotarren elkartearen sorrera, hiru bizilagun firma bilketa, lau bizilagun manifestazioa.

Oriotarrok uda garaiko hizpidea izan dugu autokarabana aparkalekua. Kontrako arrazoiak bi klasekoak. Alde batetik, bidaiari kolektiboaren aurkakoa: ez dutela herrian dirurik uzten, zikinak direla eta hainbeste astakeria. Baxuago hitz egin, herrian furgoneta eta karabana erabiltzaileak antolatzen bagara Arraun Elkartek baino bazkide gehiago izango ditugu-eta. Bestatik, kokapenak sortu du zalantza. Autokarabanen gaiari irtenbidea bilatu behar zaio, Orion egin behar da parking erregulatua, baina edozein etxaldetik urrun. Autopista azpiko gunea edo herritik kanporako partzelaren bat egokiena. Horixe da *errautste giarena* egitea, nahi dut baina urruti.

Ni plazan bizi naiz. Urtean dozena bat aldiz musika izaten dugu gauez, eta larunbatero dago zer bait. Aurrez nekizkien, orde, plazan bizitzaren baldintzak. Etxetik gozatzen dituk alironak eta txikiteroen berriketaldiak sufritu. Herritarrak eta bizilagunak gara, ez dezagun ahaztu.

“Aurreko bi denboraldietako zifrak hobetu ditugu aurten”

Jone Olaskoaga

Orioko kanpineko zuzendaria

Jone Olaskoaga -Orio, 1977- abuztu bukaeran bildu da KARKAREkin, udak emandakoez hitz egiteko. Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, aurtengo denboraldia ona izan da, Orioko kanpineko zuzendariaren esanetan.

I. GAITON

2004 eta 2005. urteetan ere aritu zen Orioko kanpineko harrieran lanean, kanpinaren etorkizuna *lausoa* zen garaian. 2016ko martxoan, zuzendari posturako kontratatu zuten. Gustura dago bi denboraldi hauetan egindako lanarekin.

Zer diote aurtengo zifrek?

Martxotik uztaila amaiera bitartekoak oso onak dira. Aurreko bi urteak nahikoa antzekoak izan ziren, partzelen okupazioari dagokionean. Aurten, 1.200 partzela gehiago eman ditugu hilabete horietan, 8.000 guztira. Iaz 6.700 inguru.

Abuztuko datuak ez dauzkagu oraindik, baina ikusten ari garenagatik, iazko datuak %10 inguruan hobetzea espero dugu denboraldi bukaerarako. Kanpina betea egon da uztaila eta abuztuko ia egun guztietan.

Kanpin txikia izanik, eta hondartza ondoan egonda, normala ere bada udan betetzea, ezta? Ateratzen al zaio nahikoa errendimendu udaberri eta udazkenean?

Orioko kanpinak joan-etorriko 106 partzela ditu, beste 36 bezero finkoentzat, eta 34 bungalow. Udan betetzea ez da zaila, hala da. Udaberri eta udazkenean bezeroak erakartze-ko, ordea, oso baldintzatuta gaude klimarekin. Udatik kanpo lan asko egiten dugu Europako adineko bezeroekin. ACSI gidaren bidez bidaiatzen dute, eta asko inprobisatzen dituzte egonaldiak, eguraldiaren arabera.

Azken urteetan, kanpinak bezero mota jakin batera zuzendu al du eskaintza? Familiak, bikoteak, jubilatuak...

Bai. Guk kanpin lasaia dela saltzen dugu, goxoa, familia girokoa. Zerbitzu eta kokapen onak dituen. Horiek dira gure bereizgarriak.

Bungalowak erosteko apustu ekonomiko sendoa egin zen 2013an. Zer balantze egiten duzu beren errendimenduaz?

Oso ona. Kanpinaren urte osoko okupazioa hobetzen lagundu digute bungalowek. Udako denboralditik kanpo, jendea erakartzen dute. Dagoeneko baditugu bezero fidelak. Gainera, bungalowetan ostatu hartzen duten bezeroen estantziak, beste motako ostatuetan izaten direnak -2-3 egun- baino luzeagoak dira normalean. Udan, gure kasuan, gutxieneko egonaldia 5 egunekoa da.

Kanpinak lanpostuak sortzen ditu, baina Udalarentzat defizitarioa dela ere entzun izan da.

Ez dut iraganeko datuen berri, baina orain, kanpinak irabaziak sortzen ditu Udaleko diru kutxarako. Irabazien ehuneko bat kanpinean inbertitzen dugu, eta gainontzekoa, Udaleko beste proiektuetara bideratzen da.

2004 urtean, kanpina txikitu zuen Udalak hondartzako erreforma egiteko. Urte batzuetan, kanpina itxi egingo zena- ren zurrumurrua ere zabaldur zen. Azken urtetan, berriz inbertitu da dirua.

Kanpina herrian balore positiboa dela argi dago. Bertako bezeroek bizitza ematen diote herriari. Azken urteetan eman zaion bultzadarekin, kanpinak etorkizuna bermatuta duela esango nuke nik. Bezeroek asko eskertu dituzte azken urteetako aldaketak eta instalazioetan egindako berrikuntzak.

Zementurik gabeko kanpin eta hondartzek geroz eta arrakasta handiagoa dute.

Ez dakit hondartzako erreforma zein egoera sozial eta ekonomikotan egin zen. Harritzen nauena da, hondartza ingurua eraldatzerako beste herrietako esperientziak bazirela



KARKARA

“Orioko kanpinak irabaziak sortzen ditu Udaleko diru kutxarako.”

“Azken urteetan eman zaion bultzadarekin, kanpinak etorkizuna bermatua du.”

dagoeneko. Herriaren balio turistikoa, eta kanpinarena, dudarik gabe, ezberdinak lirateke orain lehengo hondartzaren inguru naturala mantendu izan balitz.

Autokarabanentzat egin nahi den parkingak hautsa arrotu du herrian. Egiten bada, izango al du eraginik kanpinaren martxan?

Nire iritziz, eskaintza desberdinak dira. Bezero batek, momentu batean, kanpin baten zerbitzu guztiak nahi ditu. Beste batean, berriz, behar konkretu batzuk bakarrik izan ditzake. Autokarabanen parkingak ez dio eragin negatiborik sortuko kanpinari. Gainera, Udalak gaur egun ematen ez duen zerbitzu bat emango luke.

Udan bolo-bolo ibili da turismo masiboaren gaia. Oriok, nahikoa turista erakartzen al du?

Oriok aldaketa estruktural baten beharra du turismo arloan. Herriak krisi identitarioa duela ere esango nuke. Herrian bi multzotan sailka daiteke jendea: batetik, Orio turista kantitate honekin mantentzearen aldekoak. Bizitzeko herri lasaia da, eta herritar askorentzat luxua da hori. Beste aldean, turista gehiago erakartzearen aldekoak ditugu. Ondo aztertu beharreko gaia da. Zer nahi du gehiengoak? Lanketa handia dugu aurretik.

Oriok, ba al du turismoa erakartzeko bereizgarririk?

Zumaia, Getaria edo Zarautz espezializatu egin dira, bereizgarriak dituzte: flysch-ak, Balenciaga, arrantza, gastronomia, surfa... Orio herri lasaia da, paseatzeko leku ederrak dauzka, eta aukera asko eskaintzen dituen ibai. Historikoki ere intereseko eduki asko eskaini ditzake Oriok: arrauna, ontzigintza, bale arrantza... Badugu nahikoa lehengai, kalitatezko eskaintza turistikoak diseinatzeko.

ARGAZKI ERREPORTAJEA



OLATZ ZULOAGA

San Donato eta San Lorentzo jaiak





ARGAZKI ERREPORTAJEA

Haur, gazte eta heldu, guztiak festan

Egun batzuetan euriak kaleak busti arren, eguraldiak ez zituen goibeldu San Donato eta San Lorentzo jaiak. Gazte egunarekin hasi ziren Aiako festak; lehen aldiz antolatu zuten herriko gazteek eta arrakastatsua izan zela diote han izan zirenek. Behin martxa hartuta, jaiak ez ziren geratu bost egunez. Haurrek izan zuten berea, propioa, apar festa, puzgarri eta jolasekin. Buruhandiak ere egunero atera ziren, trikitixa doinuen konpainian, korrika saio batzuk egitera. Eta Aiako festak guztientzat direnez, ez ziren falta izan, ezta ere, urteroko musa, pilota, toka eta sardinak.





PUBLIZITATEA



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

OREKA FISIOTERAPIA

*Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrosia
Zefaleak*

Masaje terapeutikoa,
bentosa, akupuntura,
eskuzko terapia,
osteopatia

943 13 35 37

Arizaga kalea, 11 behe



ORIA hartz klinika

Amantziaga kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

Oria Hartz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berritu jarri du martean.
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre erorkizunean sar daitezkeen arazoak.

ITZUAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

KAILOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Arantzale kalea, 1
T 943 84 885
ORIO (Gipuzkoa)

Zaparrak kalea, 18
15 Parotako kalearekin iduriz
T 943 021 034
ZARAUZ (Gipuzkoa)

Erbera kalea, 10
T 943 543 007
ZUMAIA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es



ELEKTRIZITATEA
Ander Exposito

943 831 774
600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com

Ille apaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

URAITZ

*burrintologia
jantzi-osagarriak*

Endara 13 Tfn: 943 83 18 97



EKILORE GARBIKETAK

626417841
ekilore@outlook.es

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA



2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

T: 943 835 980 W: www.2gurpil.com E: bigurpil@hotmail.com



BODEGON SARASUA
ETXETEGIA

ETXETEGIA
ARRAIN ZOPA
PARRILA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05



PATXI OLIDEN
Hemengo haragia.
Etxeko produktua: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, krokettek...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10




INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO





Hura bai martxa!

Guxabi, Marinela, Itsas Ondo, Boga Boga, Txinparta...
Hondartzako txiringito zaharretako jabe eta langileekin egon da
KARKARA, galdera konplexu bati erantzun posibleak bilatzen
hasteko asmoz: Antillako apustu estrategikoa, ondo atera al da?

ERREPORTAJEA



TESTUA: I. GAITON

**ARGAZKIAK: K. MORAN / M.L. LOPETEGI / J.M. GOZATEGI /
L. GLEZ DE TXABARRI**

Gogoan dut Julian Retegi jatetxe kanpoaldean, pilota eskuan zuela, semeari sakea nola egin erakusten... Zarauzko frontoian jokatu ostean, askotan etortzen zen gurera afaltzera. Besoetako ileak tentetzen zaizkie Jose Mari San Sebastian eta Maria Jesus Leundari halakoak gogoratzen. Beste behin, Donostiako Jazzaldian jotzekotan ziren atzerritarrek ere izan zituzten *Alanbreronean*. Orion ostatu hartuta zeuden, eta ez zuten entseguak egiteko lekurik. Jate-txean jotzen utzi zieten. *Jende piloa gerturatu zen entzutera. Hura bai saltsa!*

Inguruko herrietako sukaldari ezagunak askotan izaten ziren Orioko hondartzan afaritan igandetan, beren negozioak itxi ostean. Lasarteko zaldi karreretako jockeyak ere sarri.

1974tik 1997ra bitartean, erruz egin zuten lan *Alanbreronean*. Beste taberna eta jatetxeetan ere bai. *Denentzat zegoen lana, jende asko mugitzen zen garai hartako txiringitoetan*, dio Jose Marik. Gauerdia ondo jota ere jarduten ziren parri-lan. Egoerak oso trabestua behar zuen mokadua egitera eto-rritako bezeroak tripa bete gabe bidaltzeko.

Gauero ko kafe eta izozkiak

Udako iluntzetan, turistez gain, herriko jende asko ere hondartzako txiringitoetara hurbiltzen zen afaldu, kafea hartu edo izozkia jatera. M. Jesusek hitz onak bakarrik ditu jatetxe-an lanean aritutako langile zein bezero oriotarrentzat. *Gaztetxo askok gustura heltzen zieten liburuei irailean, uda gurean lanean pasa ostean*, dio barrez Jose Marik, gauero nego-



“Udako iluntzetan, turistez gain, herriko jende asko hurbiltzen zen hondartzara.”

“Kanpineko turistek eta palazio inguruak betetzen zituzten domingeroak bizia ematen zioten Oriori.”

zioa ordubiak jota ixten zutela gogoratzean.

Boga Bogan ere makina aldiz kentzen zizkieten kartak eta tapetea mahai gainetik jendeari, ordu txikietako kanpaiak jo eta taberna itxi ezinda. Oporretan ez zen etxeratzeko presarik izaten. Orain, ordea, bezeroek *bestelako ohiturak dituzte*. Hori uste du Jose Manuel Gozategik. Makina uda pasa zituen izerditan, familia osoarekin batera, Boga Boga jatetxean lanean. *Txiringito batean edo bestean, erraza zen herriko lagunak topatzea, eta horrek jendea erakartzen zuen hondartza aldera. Kristoren giroa sortzen zen.*

Diputazioan lan egiten zuen gizon bat askotan pasatzen zen Boga Bogatik jai egunetan. Josek, Jose Manuelen aitak, sarri galdetzen zion ea Antillako proiektu berriaz ezer bazekien. Hark ez zion erantzun argirik ematen. *Agian zuena libratuko duk, hortxe zagok muga...* Hondartzako gainontzeko negozioak bezala, 1997an itxi zuten jatetxea, beren borondatearen aurka.

Gozategitarren familiak lanerako zuen fundamentua ikusita, agintariak eraikitza zehazten hiru txiringito berrietako bat hartzera animatzen zituzten. Enkantean atera ziren. *Ez dakit jendeak zer espero zuen. Guk argi ikusi genuen kontzesioa lortzeko zifrak altuegiak zirela. Zaila zen zenbaki horiekin negozioak errentagarri egitea.*

Kaxueletako tapak altxatzeraino

Bezeroak etxean bezala ibiltzen ziren *Alanbreronean* zein Boga Bogan. Jabeek harreman estua zuten beretako askorekin. *Batzuekin estuegia ere bai!* nabarmendu du Josek ironiaz. Janari usainari segika, sukalderaino sartzen zirenak ere baziren, kazueletako tapak altxa eta barruan zer zegoen ikustera.

2013an, Gozategitarrek Orioko Kanpineko taberna berri-tua hartu zuten errentan. Honi ere Boga Boga jarri zioten izena. Jose Manuelen arabera, bi tabernen martxan gehien aldatu dena bezeroen profila da. *Jendeak pazientzia gutxiago du gaur egun, eta zorrotzagoa ere bada da janari kontuetan.* Lehen *sota, caballo, rey* izaten zen menua. Parrilan egiten zuten lan gehien, eta sukaldean, orain baino gutxiago. Sardina izaten zen nagusi. Txitxarroa, oilaskoa edo paella ere erruz zerbitzatzen zituzten, tarteka itsasaldiek dantzan jartzen zituzten mahaietan.

Jose Manuelen ustez, kanpineko turistek eta palazio inguruak betetzen zituzten domingeroek agian ez zuten diru gehiegi utziko herrian, baina benetako bizia ematen zioten Oriori. Antillako erreformarekin martxa hura ahituko zenaren errezeloa izanik, malkoak ere atera zitzaizkien Boga Boga zaharra bota zutenean. *Tristeza izan zen azken eguna. Dena hustu eta makinek nola eraisten zuten begira egon ginen.*

Nortasuna eta giro propioa

Hondartza ingurua *paradisua* zen Martin Fowles eta Steve Briggs ingelesentzat, eraldatu aurretik. Urtero etortzen ziren kanpinera, Antilla zaharraren izaera basatia ez baitzuten inguruko beste herrietan topatzen. *Nortasuna* zuten hondartzak eta inguruko txiringitoek, Laura eta Elisabet Gonzalez de Txabarriren iritziz. Horrek erakartzen zuen Martin eta

ERREPORTAJEA



Steve bezala, txoko ezberdinetako jendea. *Orioko hondartzak izaera eta giro propioa zeuzkan.*

Marinela jatetxeabi urtez gobernatu ostean, bi ahizpen gurasoek Antillako Los Troncos txaleta erosi zuten 1983an, moldatu eta familiako negozio bihurtzeko. Guxabi izena jarri zioten tabernari. Gazteak ziren orduan bi ahizpak. Leonard Cohen edo The Policeren kantak jartzen zituzten iluntzero, taberna girotzeko. *Udan gauero sortzen zen giroa terrazan. Oroitzapen bikainak dauzkagu.* Elisabet Madrilajoan zen unibertsitate ikasketak egitera. Bertan, jende askok ezagutzen zuen Orio. *Getariaren aldean, adibidez, izen handia zuen 80ko hamarkadan.*

Urte gutxian, porlan festa

Antilla inguruan zementu asko sartu zuten nahikoa epe laburrean: kanpoko barra, malekoia, txiringito berriak, etxeak, hotela... Hondartzako giroa nabarmen epeltzearekin batera, balio handiko ondare ekologikoa zanpatu zuen porlanak. Elisabet, Laura eta gainontzeko anai-arrebak bazuten horren kontzientzia. Orduko agintarientzat, ordea, ingurumenaren aldeko argumentuek pisu gutxi zuten. *Antillako erreformak eskatzen zituen arreta eta ardurarako oso azkar hartu ziren erabakiak. Ordurako, zementuaren garapen eredu hori zaharkitu xamarra zegoela iruditzen zitzaigun guri,* dio Elisabetek.

Proiektu berriak dena eraldatuko zuela jakitean, bi ahizpek argi ikusi zuten zetorrenakezin zuela oso ona izan. Buka-

“Antilla zaharraren izaera basatia ez zen inguruko herrietan topatzen.”

“Garbi dago, orduko apustuak kale egin du.”



era nahikoa *traumatikoa* izan zela gogoratzen dute. Madrile-ra ere joan ziren, obrei buruzko lehen eskuko informazioa biltzera. Jakin zutenaren arabera, proiektua gauzatzeko *Costas* en eta udalaren lurak bereizten dituen *Línea marítimo terrestre* delakoa atzeratu behar izan zuten. Horrela, *Costas* en lurretan geratu ziren hondartzako txalet guztiak, Guxabi barne. *Desjabetzea asko merketzea lortu zuten*, dio Elisabete. Antillako obren atzean interesak egon zitezkeen galde-tuta, kategoriako erantzuna eman du: *ura pasatzen den leku guztietan geratzen da umedadea*.

Herriak babesturiko eraldaketa?

Kanpoko barra eta errioaren bestaldeko kofradia arrantzaren justifikazioarekin egin ziren, eta gaur sei bapote bakarrik ditugu Orion. Hondartzako uraren, eta batez ere hondarren kalitateak, nabarmen egin dute okerrera azken 20 urte-tan. Geomorfologian doktorea den Jose Miguel Edesok zu-zendutako ikerketa baten arabera, Antilla hondartzako hon-dar alearen tamaina bikoiztu egin zen 1988 eta 2012 urteen artean, besteak beste, espigoi berriek eragindako korrante aldaketan ondorioz.

Hondartzako lehen lerroan eraiki ziren etxebizitzetako dago-kionez, 96tik 39 hutsak daude, erroldatutako inor gabe –Orioko Udalak 2017ko uztailaren 23an emandako da-tua–. Hotelak 2006an zabaldu zituen ateak, azpian trata-menduak eskaintzeko 1250 metro karratuko talasoterapia

zentroarekin. Urte gutxira, instalazioek itxura zargaldua zu-ten, kanpotik eta barrutik. Bezeroek Trip Advisor webgune-an idatzitako iritziei erreparatuz gero, termino gutxiesgarri ugari topa daitezke: utzikeria, lotsagarria, eskasa,... Bertan ostatu hartu eta, aurretiazko abisurik gabe, SPA zerbitzua itxita topatu zuela kexatzen denik ere bada. Hotel Talasote-rapia Baleak 2016ko azaroan itxi zituen ateak. Eraikina en-kantera atera zen gero, eta beste jabe batzuek 2017ko ekaine-an zabaldu zuten berriz.

Txiringitoen gaira itzuliz, berriak eraiki zituztenetik nego-zioak sarri aldatu dira eskuz. Azken urtetan, Galerna jatetxea da urtez urte jabe berekin iraun duen bakarra. Antilla erabe-rritzeko proiektua agintariek uste zutena baino okerrago atera dela iritziz dute Elisabete eta Laurak. *Garbi dago, orduko apustuak kale egin du*. Hondartzako plana politikariek disei-natu eta gauzatu zuten, baina herriko jendeak ez zuen aurka-ko ahotsik altxatu. *Ikusi egin behar herritarrei zer saldu zi-tzairen: itsas pasealekua, kirol portua, hotela, garapena, mo-dernitatea...* Elisabet eta Lauraren ustez, erreformak beharrezkoak ziren, baina egindako obrak *gehiegikeria hutsa* izan dira.

Esther Larrañagak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Plangintza saileko buru izan zenak, Guxabiko ahizpen tankerako iritzia plazaratu zuen duela urte gutxi: *Orioko hondartzako erreforma egin behar ez denaren eredu garbia da*.

ARGAZKI MUNDIALA



Aiako eskola-umeak 1965 urte inguruan

Andres Odriozolak bidali digu goiko argazkia. Aiako eskola-umeak agertzen dira bertan, 1965 urte inguruan. Samuel Pelaez zuten maisu. Hauek dira argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik hasita:

Goian: Martin Sarobe, Valentin Aldalur, Andres Odriozola, Samuel Pelaez maisua, Julian Lizaso, Antonio Aldalur, Jose Antonio Lisazo, Higinio Arrizabala eta Jose Aranberri.

Bigarren lerroan zutik: Pedro M. Arruti, Jose M. Aranberri, Roman Aranberri, Jesus Valle, Jose M. Uria, ezezaguna –praktikantearen semea–, Fernando Ariztimuño, Miguel Angel Mujika, Alberto Azpiroz, Mariano Lizaso eta Eusebio Manterola.

Eserita: Juanito Iburguren, Eusebio Sarobe, Fermin Zuloaga, Jose Luis Telleria, Agustin Lopetegi, Jose Antonio Azpiroz, Paulo Aldalur eta Ignazio Huegun.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-ritakoa dela jarrita.

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBINE ARRILLAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43
www.943131943.com/ROSAARRILLAGA

10% DESKONTUA FAMILIA UGARJENTZAKI

Garbine Arregi

Moda eta osagarriak

Herrera plaza, 5
635 716 263

jantziak eta osagarriak goizean zabaldu!

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine

35eko deskontua familia egarrien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio

943 134 889 argine/jantziak



**Zaragueta
Herri Eskola Orio**

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

“Orion mundu guztiko jendea ikusteak harritu gaitu”

Carlos Lizarralde eta Carolina Barrio
Oriotar jatorriko argentinarrak

NERE MANTEROLA

Carlos Lizarralde eta Carolina Barrio Asier semearekin izan dira Orion uztaillean. Carlos, Xanti Manterola *Txaga* eta Mila Arostegiren familiakoa da, Argentinako iloba.

Carlos, ze lotura duzu Oriorekin?

Lizarralde: Nire aitaren gurasoak biak euskaldunak ziren. Aitona Bilbokoa zen eta amona, berriz, Errenteriakoa, Lide Arostegi. Sei anai- arreba ziren eta gerra garaian Argentina-ra joan ziren. Han ezagutu ztuen elkar. Nire amona Felipe Arostegiren lehengusua zen, hortik dugu Oriorekin lotura.

Oriorekin izan zenuen lehenengo kontaktua?

L: 90eko hamarkadaren hasieran zure gurasoak etorri ziren, Mila Arostegi eta Xanti Manterola. Gu txikiak ginen baina arratsalde oso bat pasa genuen *Ongi-etorri* kartelak egiten aireportura eramateko. Ni, gero, hamabost urterekin etorri nintzen lehenengo aldiz. Han, hamabost urte betetzean oparia egiten da eta gure etxean hona bidaiatzea zen oparia. Gero, askotan egon naiz. Maitemindu egin nintzen eta beti etorri nahi izaten dut.

Carolina, zer moduz joan da Oriorekin izan duzun lehenengo kontaktua?

Barrio: Ondo joan da. Europara etortzen naizen lehen aldia da eta denak oso ondo funtzionatzen duela iruditzen zait. Lasai bizi zarete, legeak errespetatzen dira, hondakinak banandu egiten dira...

Zuen semeak Asier izena du, Asier Lizarralde. Zergatik jarri diozue izen euskaldun bat zuen semeari?

L: Memoriaren kontua da. Bat nondik datorren eta bere jendea zein den gogoratzea garrantzitsua da niretzat. Argentinan ere badago nire jendea, jakina, baina ez dakit, euskara ere beti gustatu izan zait eta nire aldamenean edukitzeko era bat izan daiteke izenarena.

Zuen Argentinako bizitza eta Orion ezagutu duzuen bizitza alderatu diezazkiguzue.



Carlos, Carolina eta Asier, Martin eta Lur Orioko lehengusuekin. 4.jenerazioa ere elkartu da Orion. N. MANTEROLA

L: Nik txikitan ezagututako herriarekin konparatuko dut. Lehenengo alde jendearena da, han jende gehiago dago. Hemen kalea eta natura oso gertu dago, itsasoa, mendia... Ni txikitan antzera bizi nintzen, bizikletan ibiltzen nintzen kallean, lagunekin denbora asko pasatzen nuen kallean... Orain hori asko aldatu da. Jendeak bizitza gehiena etxean egiten du, kotxez joaten da leku guztietara... Inseguritate handia dago. Atzo adibidez, soziedadetik Lur eta Manex gaueko haiaiketara etxera bizikletaz joan ziren bakarrik. Hori Argentinan, pentsaezina da. Lehenago egiten zen, baina orain ez, arrisku handia dago eta pentsaezina da.

B: Hemen jendea erlaxatuago bizi dela uste dut, zoriontsuagoa dela, beste ordutegi batzuk ditu, beste lasaitasun bat. Han inseguritate handia dugu eta horrek asko eragiten du.

Zerk harritu zaituzte?

L: Aparkatzeko sistemak harritu nau. Oraindik ez dut ulertu. Leku batzuetan ordaindu egin behar dut, beste batzuetan ordu erdi bakarrik utz dezaket eta beste batzuetan nahi adina. Orio herri txikia izanik denarekin konektatuta dagoela ere iruditzen zait. Haurrak heldu egitean, ikasketak egitera joatea, lan egitera joatea eta gero erraztasunez etortzea ederra da. Han etxetik ateratzen zarenean zailagoa da bueltatzea. Argentinan asko egoteak, kanpoko jendea egoteak ere harritu nau. Kanpotik, uix! denak euskaldunak, itxi xamarra izanago zenaren sentsazioa nuen, eta gero, edozein etor daitekeela eta lekua bere egin dezakeela sentitu dut. Hori Argentinan ere badu, eta hemen ere sentitu dut. Orion mundu guztiko jendea ikusteak harritu nau.

Itzuliko zarete?

L: Bai, noski baietz!

B: Ni itzuli, itzuliko naiz! Eta bizitzen ere geratuko nintzateke!

Eta aurtengoa balekoa balitz?



Intza Unanue

Iraila gerturatzearekin batera, bada herritarroi barnean sortzen zaigun halako korapilo edo urduritasun puntu bat. Bi astez, tribu horia bilakatzen gara, denok barnean ditugun herri sentimendua eta harrotasuna puzten zazkigu –bai, are eta gehiago–.

Igandea, goizeko 8:15. Trenean bagoi barnean ez da horia ez den beste kolorerik izaten. Donostiako geltokian hanka jarri orduko ikustekoa da norbanako baikoitzari niki horiak ematen digun indarra eta arpegietan dugun ilusioa. Estropada hasi baino hiru bat ordu lehenago, gazte kuadrilak Aquarium parera iritsi, lekua hartu eta bertan prestatzen dugu gure txokoa. Lurririkarak, tsunamiak, meteoritoak... edozer etortzen dela ere leial itxaroten dugu gure lekuetan irrifarra

“Igandea, goizeko 8:15. Trenean bagoi barnean ez da horia ez den beste kolorerik izaten.”

galdu gabe. Orduari begira igarotzen dugu goiza, une handia iritsi zain.

Erloiua aurrera joan ahala urduritasuna handitzen doa, baita pasealekua betetzen ere. Kolore aniztasuna gehitxo handitzen da oriotarron lasaitasunerako... Zu, hala ere, harro zaude, zure lekua baino hobeagorik inork ez baitu aurkituko. Goiz esnatzeak badu bere saria!

Irratia konektatu, aurikularra belarrian sartu eta lehen tandari erreparatzen diozu, baina zeharka. Azken tanda iritsi da. Hemen dira gureak. Epaileak zutitu du bandera txuria. Eta zast! Konturatu zarenerako Udai-baiko bikote petral bat muturraren aurrean sartu zaitu. Ezin duzu ezer ikusi. Zureak egin du.



Marisa Arruabarrena

Ieklatuaren aurrean jarri naizen une honetan ideiarik ere ez dut zer den iraileko bigarren igandean gertatuko dena. Ai jakingo banu!

Aurrekoan, Zarauzko ikurriñan, negarra ez genuen urruti: larunbatean guztiz txoratuta eta igandean... Estropada telebistaz ikusi bagenuen ere, *alironerako* bertan ginen... Hori da hori poza! Herri osoa plazan zegoen, baita Eusko Gudari kaleko txinatar dendako familia ere.

Oriotarrak zertzeate ba exajeratuk! esaten digutenean saiatzen naiz adierazten arraunarekin dugun lotura-grina-maitasuna zenbaterainokoa den, baina badaikit zaila dela ulertzen. Horretarako joan den igandeko

“Hori da hori poza! Herri osoa plazan zegoen, baita Eusko Gudari kaleko txinotako familia ere”

plaza-udaletxeko irudi haren partaide izatea besterik ez da behar.

Idazki hau argitaratu eta gero pasako da dena. Herria gailurrean izango dugu ala datorren urtekoaren esperoan?

Emaitza edozein delarik ere, aurtengo denboraldian eskaini diguzuena eskertzea baino ez zait geratzen.

Gure aitaren begien distira, Oiartzunen jaiotako iloba txikiaren *aupa Orio*a eta bertan bizi garen familia osoaren ilusioa ez da ordaintzen munduko diru guztiarekin ere!

Oriotarra izateaz harro! Inoiz baino gehiago. Eta dena zuei esker!

Esango ez dugu bada beti *aupa Orio*!



Manuel Olaizola bere mutilekin, gorbata eta guzti.

Manuel Olaizola bizirik naufragiotik

Oroimenaren kutxa

Irailaren 10ean, arratsaldeko lehen orduan, Getariko La Santísima Trinidad trainerua Donostiako moilatik itsasoratu zen. Donostiatik bost milia ingurura, traineru bat topatu zuten iraulita. Ontziko 11 gizonak uretan zebiltzan, olatuen kontra borrokan, ontziari heldu nahian. Manuel Olaizola zegoen haien artean, arrantzontziaren patroia. Getariarren patroia, berriz, Bartolome Uranga zen. Harengizonek banan-banan igo zituzten uretatik beren trainerura 11 arrantzale oriotarrak, eta etxera eraman.

Albiste 1897ko irailaren 13koa da. *El Día* egunkariak eman zuen –guk euskaratuta–. Naufragio hartako Manuel Olaizola da 1901eko maiatzean balea harrapatu zuten bost patroietako bat, bertsoetan aipatzen den lehena; eta bera da 1901eko irailean Oriora Kontxako aurreneko bandera ekarri zuen patroia.

Heroe bihurtua ere badugu Olaizola aspaldi honetan, balearen bertsoengatik eta bost urtean behin herrian ospatzen dugun balea-egunagatik. Hala ere, ez dakigu askorik arrantzale haren bizitzaz. Historian jasotako haren biografia laburra da, eta dakigun gehiena arraunari lotuta dago. Ondoko hau Orioko patroiak, herri txiki baten historia handia liburutik hartua da:

Manuel Olaizola 1861-04-23an jaio zen Orion. Hamar urte zituela, umezurtz geratu zen. Orduan hasizzen arrantzan. Bizitza osoa itsasoari lotuta eman zuen. 1890ean jokatu zuen lehengo estropada, patroia. Hirugarren geratu ziren, bandera Luis Karrilek irabazi zuen donostiarrentzat.

1901-09-09an irabazi zuen Oriorentzat lehen bandera, atzean San Pedro, San Juan eta donostiarrak utzita. Bandera eta 700 pezetako saria izan zuten. Oinez itzuli ziren, Igeldotik barrena; Muniota baserrian geratu ziren sagardo pixka bat hartzen, herrira iritsi aurretik. Denora, Kontxako 5 bandera irabazi zituen: 1901, 1909, 1910, 1916 eta 1919koa. Azken hori

izan zen, 1919koa, oriotarrek horiz jantzita irabazi zuten lehena.

1911n Oriok uko egin zion getariarrekin finala jokatzeari, haiek arauz kontra zihoazelakoan: aurreneko estropadatik bigarrenera bi mutil aldatuta. Getariarrek bakarrik egin zuten ibilbidea. Gero, Orio damutu egin zen egindakoaz eta barkamena eskatu. Olaizolak sinatutako gutunean 1.500 pezetako diru-saria eskatu zuten. Onartu egin zitzaien.

Getariarrak Mendibeltzera etorri ziren, irabazitako bandera mendi gainetik oriotarrei erakustera, hura astinduz. Oriotarrak haien bila abiatu ziren eta haiek herrira bueltatzea erabaki zuten. Oriotik bertsoak jarri zitzaizkien getariarrei, oraindik ere zenbaiten gogoan daudenak.

1928an Ciaboga aldizkariak elkarrizketa egin zion Manueli, 67 urterekin erretiratuta zegoela. Arraun-aldizkaria erdara hutsez argitaratu zuten beti. Olaizolari egindako elkarrizketako hitzak dira Ciabogak bere denbora guztian euskaraz plazaratutako bakarretakoak; seguru asko, Manuel ez zelako erdaraz moldatzen.

1930ean Donostiako Udalak omenaldia egin zien Manuel Olaizola eta San Pedroko Aita Manuel patroiei. eta gorbata bana erregalatu. 1941-12-11n hil zen Olaizola, 80 urterekin. Altxerriren garaian, 70eko hamarkadan, traineruak Olaizola izena hartu zuen. 2001ean ospakizun bikoitza izan zen Orion, balearen eta lehen banderaren mendeurrena. Bietan, Olaizola protagonista.

Getariako arrantzaleei esker salbatu ziren heriotzatik 1897an Orioko 11 arrantzale. 1897ko naufragioaren albisteak osatu egiten du Manuelen biografia. Olaizolak 36 urte zituen orduan, eta artean gertatu gabeak ziren Orioko historia markatu zuten 1901eko bi gertaerak. Historia bestelakoa izango zen getariarrak orduan han egokitu izan ez balira.

IÑAKI ITURAIN

Kultura

Donostiako erraldoien jantziak egin dituzte Rosaura Bravok eta Argiñe Azkaratek



Hilabeteetako lanaren ondoren, abuztuaren 12tik 19ra jendaurrean ibili ziren Donostiako erraldoiak, itxuraberrituta. Esku eta aurpegi berrituak dituzte, bate-tik, eta jantzi berriak, bestetik. Azken horiek Orion eginak dira, Rosaura Bravok eta Argiñe Azkaratek, hain zuzen. Lau metroko altuerako zortzi erraldoien jantziak egin dituzte; Hego Euskal Herriko probintzia bakoitzeko bikote bat. Arabatik, Erromualdo eta Estitxu, Guardiako dantzariak; Bizkaitik, Mattin eta Maritxu,

olagizona eta baserritarra; Gipuzkoatik, Xanti eta Karmeli, arrantzale oriotarra eta batelera pasaitarra; eta Nafarroatik, Eneko eta Blanca, Erronkariko bikotea. Erraldoien jantziak egiterakoan lehendik zuten esentzia ez galtzea zen Itzurun Donostiako erraldoi eta buruhandien konpartsaren nahia, baina bazen zer hobetua. *Ikerketa egin dugu pertsonaia horiek fidelitasunez irudikatzeke, jantzi historikoetan oinarritu gara*, dio Bravok. Orioko arrantzaleak, adibidez, alkandora

lekeitiarra zuen jantzia, eta aldatu egin diote pertsonaiaren esentzia hobetzeko. Ikerketa lanetan adituen laguntza handia jaso dute. Ramon Garcia jantzi klasikoe-tan adituak eta Arabako Foru Aldundiak zalantzak argitzen lagundu diete. Eta haiengandik jasotako xehetasunak errespetatu dituzte jantziak egiterakoan: brodatuak, detaileak...

Herritarren laguntza eta inplikazio handia ere jaso dutela dio Bravok. Orio herri txikia da eta denok elkar ezagutzen dugu, jantziak ia auzolanean egin ditugula esan daiteke. Xantiren arpoia eta Blancaren lepokoa egiteko, adibidez, ezinbestekoa izan dute herritarren laguntza, baita tailerra jartzeko ere, Loretxu tabernako jangela utzi baitiete josteko.

Oriotarrentzat eskertza dantza

Abuztuaren 12an hasi zen Donostiako Aste Nagusia eta orduan izan zuten erraldoi berriek jendaurrean lehen zita. Txupinazoaren ondoren, Gipuzkoa Plazan, Itzurun konpartsak oriotarrei emandako laguntza eskertu nahi izan zien. Erraldoiek dantza eskaini zieten, Bravori eta Azkarateri ez ezik, oriotar guztiei, beren inplikazioagatik.

OSPAKIZUNA



50. urteurrena

Luis Gozategi eta Begoña Letamendi ginen ezkondu, Juan Bataiatzailearen egunean, 1967ko ekainaren 24an.

50 urte pasa dira geroztik, eta familia guztiarekin ospatu genuen urteurrena. Zoriontsu izan ginen egun hartan, eta zoriontsu orain ere ingurukoekin urrezko ezteia ospatzear. Muxu handi bana denei!



Kultura

Eskaintza berriak izango ditu aurten Ostargik

Ostargi taldeak hainbat berrikuntza eskainiko ditu datorren ikasturte-ari begira. Jantzigintza, jostintza, ehoiziri-lanak, patchworka eta korratz lanak egin dituzte orain arte. Irailetik aurrera, horiez gain, beste bi ikastaro ere eskainiko dituzte.

Batetik, paperezko eskulanak egiteko ikastaroa emango du Koro Arratibelek. Paper birrinduarekin bitxiak, kaxak, koadroak, hiru dimentsio-ko piezak eta askoz gehiago ikasteko aukera izango da bertan. Ikastaroa doakoa izango da, materiala erosteko dirua soilik jarri beharko dute ikasleek.

Bestalde, hainbat guraso gazteren eskariz, Ostargiko zenbait kide konponketa sinpleak egiten erakusteko prest agertu da interesa duenari: galtza-barrenak, konponketa txikiak, botoiak...

Interesa duenak Kultur Etxean eman dezake izena, irailaren 1etik aurrera, 943 13 44 09 telefono zenbakira deituta edo bertara joanda 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Kirola

Mikel Amilibiak zilarra lortu du munduko eskubaloï txapelketan



Mikel Amilibia oriotarra, Tibilisin (Georgia) jokatu den jubenil mailako munduko eskubaloï txapelketan izan da udan, Espainiako selekzioarekin. Partida guztiak irabazi ostean, finalera heldu zen Amilibiaren taldea.

Abuztuaren 20an jokatu zuten azken norgehiagoka Frantziako eta Espainiako selekzioek. Bi selekzioek lehia oso estua izan zuten partida osoan zehar. Azkenean, Frantziak irabazi zuen jubenil mailako munduko eskubaloï txapelketa, 25-28 emaitzarekin. Zarauzko Amenabar taldeko jokalariek bi gol sartu zituen finalen. *Oso sentsazio onarekin geratu naiz* -esan dio Amilibiak KARKARAri-, *bigarren egitea sekulako esperientzia izan da.*

Kirola

2017-2018 arraun denboraldia martxan

Traineru denboraldia amaitzen ari da eta begiak harrobian jarri ditu dagoeneko Orio AEK. Arrauna gus-tuko duen eta praktikatu nahi duen orori ateak ireki eta 2017-2018 denboraldirako izen-ematea zabaldu dute. Kirolaz gain, laguntasuna, taldekideekiko errespetua eta arduratsua izaten irakasteko tokia dela dio Arraun Elkarteak.

Irailaren 12an eta 13an egingo dituzte bilerak, maila-ka. Interesa duena Arraunetxan egingo diren bilere-tara joan daiteke. Hauek dira ordutegiak:

- Alebin maila - 2006-2007 urteetan jaiotakoak: irailak 13, asteazkena, 16:45ean
- Infantil maila - 2004-2005 urteetan jaiotakoak: irailak 12, asteartea, 17:30ean
- Kadete maila - 2002-2003 urteetan jaiotakoak: irailak 13, asteazkena, 17:30ean
- Jubenil maila - 2000-2001 urteetan jaiotakoak: irailak 12, asteartea, 18:15ean

Kirola

Zilarrezko domina irabazi dute Carrerak eta Gozategik Europako Sofbol Txapelketan

Rebeka Carrera eta Miren Gozategi oriotarrek Europako Sofbol Txapelketa jokatu dute Italiako Montegranaro hirian, Atletico San Sebastian taldearekin. Finalera iritsi zen Donostiako taldea, eta larunbatean jokatu zuten partida Errusiako Caroussel taldearen aurka. Finala irabazi ez bazuten ere *oso gustura* dira egin duten lanarekin. Carrera oriotarrak azaldu duenez, finalera iritsita beren nahia bete dute, *gure helburua lehen hiru postuetan sailkatzea baitzen.*

Europako Sofbol Txapelketan podiumera igoztean lortu duen lehen talde euskalduna izan da Atletico San Sebastian, eta jokalaririk oriotarrak egin duten lanaz *harro* daude. *Txapelketa zoragarria izan da, eta partida onak jokatu ditugu*, adierazi du Carrerak.

ZERBITZUAK**AZOKA**

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

■ Logela alokagai Orion. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551550

■ Orioko familia euskalduna alokairu bila herrian bertan. Gutxienez bi logela. Tf: 635201600

■ 3 logelatako eta garajedun Babes Ofizialeko etxea alokatzen dut Andatza auzoan. Tfnoa: 660893220

Lan eskaintza

■ Emakume baten bila gabiltza, etxeko lanak egin, eta haurrak zaintzeko. Goiz eta arratsaldeko lana izango litzateke, haurrak eskolara eraman, eta eskolatik jaso ahal izateko. Disponibilitatea eskertuko da. Harremanetarako zenbakia: 606675048

■ Tabernaria behar da egunero lan egiteko, euskalduna izatea ezinbestekoa. Tf: 639729981

■ Bi neska txiki arratsaldeetan zaintzeko emakumea behar da. Emakume horrek 35-50 urte artekoa, arduratsua, alai eta euskalduna izan behar du. Kotxea eta disponibiltatea izan behar ditu. Udararen ere lan egingo du. Epe luzerako lana da. Interesatuak telefono honetara deitu: 655729050

■ Udararen ere lan egingo du. Epe luzerako lana da. Interesatuak telefono honetara deitu: 655729050

Lan eskaera

■ Emakumea lan bila. Esperientzia du pertsona helduak zaintzen, garbiketara eta besta hainbat lanetan. Paperak eguneratuta eta gomendioak ditut. Tf: 674123293

■ 34 urteko neska euskaldun eta arduratsua naiz, arratsalde haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo eta partikularrak emateko prest, (astelehenetik, ostiralera). Tf: 659321326

■ Emakumea lan bila, barnekoa, kanpokoa edo gauez. Haur edo zaharren zaintzetan edo garbiketara lan egiteko prest. Espe-

rientzia eta erreferentziak. Tf: 600390347 -Katy-

■ Karmele, 50 urteko euskalduna umeak zaintzeko lan bila. Tf: 687200368

■ Umeak zaintzeko eskaintzen da emakume bat. Esperientziaduna Tf: 664156444

■ Neska lan bila zaharren zaintzetan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 674123293

■ Ordukako lan bila dabilen mutila. Garbiketara eta helduen zaintzetan. 603644555

Salgai

■ Etxebizitza salgai arrantzale kalean. Duplex-a, 3 logela, 2 komun, sala, garajea. Permuta beste etxebizitza txikiagotatik ere egin daiteke. Interesatuak deitu 648820190 telefonora.

■ Mobile homea saltzen edo alokatzen da Bañares kanpinean, Santo Domingo de la Calzada herrian -Errioxa-. Tf: 649346893 -Eli-.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	1:40 eta 14:11	7:38 eta 20:17	☉
02	2:43 eta 15:04	8:38 eta 21:09	☉
03	3:31 eta 15:47	9:25 eta 21:52	☉
04	4:10 eta 16:25	10:05 eta 22:30	☉
05	4:45 eta 16:59	10:42 eta 23:05	☉
06	5:19 eta 17:34	11:18 eta 23:41	☉
07	5:53 eta 18:08	11:53 eta	☉
08	6:28 eta 18:44	0:16 eta 12:29	☉
09	7:04 eta 19:22	0:53 eta 13:08	☉
10	7:43 eta 20:04	1:33 eta 13:49	☉
11	8:26 eta 20:51	2:16 eta 14:36	☉
12	9:17 eta 21:49	3:04 eta 15:31	☉
13	10:21 eta 23:03	4:03 eta 16:38	☉
14	11:42 eta	5:14 eta 17:59	☉
15	0:32 eta 13:09	6:36 eta 19:23	☉
16	1:55 eta 14:24	7:54 eta 20:35	☉
17	3:02 eta 15:23	8:57 eta 21:32	☉
18	3:54 eta 16:12	9:50 eta 22:19	☉
19	4:39 eta 16:56	10:34 eta 23:01	☉
20	5:19 eta 17:35	11:15 eta 23:40	☉
21	5:56 eta 18:12	11:53 eta	☉
22	6:31 eta 18:47	0:16 eta 12:30	☉
23	7:04 eta 19:21	0:51 eta 13:06	☉
24	7:38 eta 19:56	1:26 eta 13:42	☉
25	8:13 eta 20:33	2:01 eta 14:21	☉
26	8:51 eta 21:15	2:40 eta 15:04	☉
27	9:38 eta 22:10	3:24 eta 15:56	☉
28	10:41 eta 23:27	4:20 eta 17:04	☉
29	12:05 eta	5:34 eta 18:25	☉
30	0:57 eta 13:28	6:55 eta 19:39	☉

ZAINTZAKO BOTIKAK**IRAILA:**

- 1ean, Lasa
- 2an eta 3an, Gallo
- 4an, Lasa
- 5ean, Larrañaga
- 6an, Iriarte
- 7an, Etxeberria
- 8an, Gallo
- 9an, Lasa
- 10ean, Mutiozabal
- 11tik 15era, Lasa
- 16an eta 17an, Etxeberria
- 18an, Izpizua
- 19an, Etxeberria
- 20an, Gallo
- 21ean, Lasa
- 22an, Zulaika
- 23an eta 24ean, Iriarte
- 25ean, Etxeberria
- 26an, Gallo
- 27an, Izpizua
- 28an, Zulaika
- 29an, Iriarte
- 30ean, Esparza

Izpizua: Urdaneta kalea, 8.

943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17.

943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.

943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16.

943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.

943 83 09 36 Oriz

Gallo: Zigordia kalea, 17.

943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo

Enea. 943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41

943 13 39 94 Zarautz

Esparza: Santuturri plaza, 5.

943 50 47 83 Zarautz

Katu Moria
ORIO

ESTROPALARI, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrañaga
668 89 11 29

www.katumoria.com

BODEGAS Gailur

PRIMER BODEGA de ORIO
Tel./Fax 943 83 91 58
www.bodegasgailur.com

Amalux Errizola

ZUDUGARAI

Galeria Txakolina

Tel. 943 83 03 88
Fax 943 83 39 58
bukal@zudugarai.com
www.bukal@zudugarai.com

KOMIKIA



Aia

Podologoa

■ Irailaren 30ean podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

Orio

Irailak 1, ostirala

■ Irailaren 1ean, 17:30ean, apar festa haurrentzat Ibai Ondo plazan.
Irailaren 1ean, 20:00etan, Easo abesbatzaren kontzertua elizan.

OST festa

■ Irailaren 2an, OST festa hondartzan Orioko Surf Taldeak antolatuta, 09:00 etan surf saio inklusiboa, Berdin-Berdinak elkarteak eta OSTk antolatuta; 11:00etan, hamaiketako; 17:00etan, volleyball txapelketa; 20:00etan, parrillada; 22:30ean, reggae kontzertua eta 00:30ean, DJ Illarras eta DJ Mike Machine.

Erakusketa

■ Irailaren 4tik 30era Javier Iraetaren zurezko eskulturen erakusketa Kultur Etxeko areto nagusian.

Talai Mendi Txaranga

■ Irailaren 13an, Talai Mendi txaranga indartzeko bilera, 20:00etan Kosta Tailerren.

Orio AE

■ Irailaren 12an eta 13an, Orio AEn izena eman nahi duten gazteekin bilerak.

Gazte festak

■ Irailaren 22an eta 23an, Orioko 8. gazte festak.

Traste zaharrak

■ Irailaren 13an eta 27an, traste zaharren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu behar da: 943830346.

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083
FAX: 943 571 190
lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
ABESLARI, I
20810 ORIO

AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

Izaskun Estankoa

Tabakoa
Prentsa
Eskola materiala
Opariak

2017ko irailaren 1a

EGIN ZAITEZ

Karkara.eus

KOMUNITATEKO KIDE

